

OSASUN-ETXEAN

NOLA JOKATU DEMENTZIA DUEN PERTSONA BATEKIN



POR SOLIDARIDAD
OTROS FINES DE INTERÉS SOCIAL





Osasun-zentroetan ingurune atseginak eta solidarioak sortu behar dira dementzia duten pertsonekin, haien alde egiteko eta haien ondoeza saihesteko.

Zer egoera sor daitezke?

- Desorientazioa, non dauden ez jakiteagatik.
- Antsietatea, itxaron behar izateagatik.
- Estresa, errutinak hausteagatik.
- Urduritasuna, itxarongelan jende gehiagorekin topo egiteagatik.
- Ezinegona, han zer egiten duten ez ulertzeagatik.
- Kezka, gaixotasunagatik.
- Ondoeza, dauden tokia ez ezagutzeagatik.

Nola joka dezakegu?

Harrera-lekuko eta administrazioko langileentzat

- Hautatu giro egoki bat itxarote-gelarako, beste pertsonengandik berezia beharrezkoa bada.
- Saiatu kontsultan sartu aurreko denbora ahalik eta laburrena izaten.

Artatze zuzeneko pertsonentzat

HARRERA ETA INGURUNEA

- Hautatu giro egoki, lasai eta irisgarri bat kontsultarako.
- Saihestu alzheimerria duen pertsonak zein familiak beste pertsona batzuekin kontaktua izatea eta haiengandik hurbil egotea, horrek antsietatea edo estresa eragiten badu.
- Saiatu kontsultan sartu aurreko denbora ahalik eta laburrena izaten.
- Erraztu gaixoa une oro familiak akonpainatuta egotea (larrialdietan, diagnostiko-probetan, etab.).



KOMUNIKAZIOA

- Aurkeztu zeure burua, eta erakutsi seguru dagoela zurekin.
- Eman informazioa familiak eta dementzia duen pertsonak osatutako binomioari kontsultan, eta egokitu mezua eta kontaktua dementzia duen pertsonaren profilerak, batez ere gaztea bada.
- Dementzia duen pertsonari hitz egin, ez ezazu umetzat har. Galde iezaiozu hari senideari edo laguntzaileari baino lehen (zer gertatzen zaion, zer min duen, nola dagoen); ez sentiarazi, beraz, egongo ez balitz bezala edo kontatu behar duena garrantzitsua izango ez balitz bezala.
- Entzun pertsona, ikusi haren erreakzioak.
- Egokitu komunikazioa pertsona bakoitzarengan, duen gaixotasunaren fasearen arabera beti ere.
- Jarri ardurak berezia lehen diagnostikoa eman behar deneko uneari eta gorde behar adina denbora beharrezko informazioa emateko. Kolpe latza da edozein pertsonarentzat, eta une horrek gure arreta, guk adi egotea eta hark barrua hustea eskatzen du.
- Sortu baldintzarik gabeko errespetu positiboa.
- Eman informazio argia eta ulergarria gaixotasunari, sintomei, zeinuei, eboluzioari eta baliabideei buruz.
- Helarazi lasaitasuna eta konfiantza, eta adieraz iezaiozu osasun-sistema han dagoela, laguntzeko.



GOMENDIOAK

- Eman alderdi etiko eta legalei buruzko informazioa, eta adierazi nora jo. Adibidez, aurretiazko borondateei edo bizi-testamentuari buruz.
- Esan iezaiozu osasun-etxeko gizarte-langileari galde diezaiokeela eska daitezkeen prestazio eta zerbitzuei buruz, hala nola mendekotasunaren balorazioari buruz.
- Eman babesa bai dementzia duen pertsonari, bai familiako zaintzaileari gaixotasunean zehar.
- Azpimarratu historia kliniko soziosanitariorantz egitearen beharra.
- Egin baheketa-probak, espezialistarengana bideratzea errazteko.
- Ez gutxietsi haren sintomak edo tratamendua (bai dementziari dagokionez, bai beste edozein gaixotasun edo gaitzi dagokionez) adinekoa izate hutsagatik, edo dementzia diagnostikatua izateagatik.
- Senide-elkarteei buruzko informazioa eman diezaiokezu familiari, gaixotasuna ulertzen laguntzeko gune bat aurkitu ahal izan dezaten.





Informazio gehiago:
www.ceafa.es/entornos-amigables

INGURUNE LAGUNKOI
ETA SOLIDARIOAK
DEMENTZIEKIN



**CONFEDERACIÓN
ESPAÑOLA DE
ALZHEIMER**